

<b>HERRITARRAK</b>	<b>Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia lortzea edo berriztea eta beraien inskribatzea Udal Erregistroan</b>
<b>GALDERA</b>	<b>ERANTZUNA</b>
Zer da? / Zertarako da?	<p>Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia pertsonala lortzeko edo berrizteko (5 urteko indarraldia du).</p> <p>Azken batean, baimena da, pertsona batek bere ardurapena arriskutsutzat jotako txakurrak eduki ahal izateko.</p>
Nork eska dezake?	<p>Lizentzia lortzeko baldintzak:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Adin-nagusia izatea.</li> <li>2. Honako delitu hauetako batengatik kondenarik jaso ez izana: giza hilketa, lesioak, tortura; atentatua askatasunaren aurka edo osotasun moralaren aurka; sexu-askatasunaren edo osasun publikoaren aurkako delituak; talde armatuko edo narkotrafikatzaile-talde bateko kidea izatea; baita ebazpen judizial bidez berariaz galarazita izatea arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzea ere.</li> <li>3. Arriskutsuak izan daitezkeen animaliei buruzko, abenduaren 23ko, 50/1999 Legeak ezarritako zigorrak bete ez izana.</li> <li>4. Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko gaitasun fisiko eta psikologikoa izatea.</li> <li>5. Erantzunkizun zibileko aseguruaren kontratatzea, gutxienez 120.000 eurokoa dena</li> <li>6. Txartelak jaulkitzeko tasa ordaindu izana.</li> </ol>
Aurkeztu beharreko dokumentazioa	<p>Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia lortzeko nahiz berrizteko, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:</p> <p>1. Lehenik eta behin, txakur arriskutsuak izateko eskaerarako hurrengo hauek eskatzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Adin nagusia izatea</li> <li>• NAN edo AIZ originala (adin-nagusiarena).</li> <li>• Eskatzailearen argazki bat, karneteko tamainan, eta berriki ateratakoa.</li> </ul> <p>Txakur arriskutsuak izateko eskabidea eta zinpeko aitortpena Eskabidea (Udaltzaingoa eskuragarri)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zigor-aurrekariak egiaztatze eskabidea tramitatze baimena (Udaltzaingoa eskuragarri).</li> <li>• Gaitasun fisiko eta psikologikoa ziurtatzeko agiria, baimendutako zentro batek emana; gehienez, eskabidea egin baino hiru hilabete lehen emana.</li> <li>• Tasa munizipala oraindu izanaren egiaztatzea (txartela jaulkitzeko)</li> </ul>

	<p>2.Behin txakur arriskutsuak izateko lizentzia edukita, txakur bera <i>Txakur arrikutsuen Erregistroan</i> inskribatzeko eskaera egingo da, horretarako hurengo hauek behar dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Txakurra inskribatzeko eskaera orria (Udaltzaingoetan eskuragarri)</li> <li>• Erantzunkizun zibileko aseguruaren poliza, gutxienez 120.000 euro estaltzen duena, nahiz eta beste pertsona bati txakurra bere zaintzarako utzi izana.</li> <li>• Aseguru polizaren ordainketa agiria</li> <li>• Txakur erregistro orria. Ez bada aurkezten eskaera honekin, lizentzia eskuratu eta hurrengo 15 egunetan aurkeztu beharko da. Bizkaiko Foru Aldundiko, Txakurren Erroldan (Albaitaria)</li> <li>• Albaitariaren ziurtagiri berriztatua, txakurraren osasun egoera ziurtatzen duena, gaixotasunik ez duela ziurtatuz, txakur bereziki arriskutsua izateko.</li> <li>• Txakurraren osasun txartela.</li> <li>• Txakurraren argazkia (kolorean), gorputz osokoa.</li> </ul>
<p>Non egin behar da eskabidea?</p>	<p><b>Aurrez aurre: <u>Udaltzaingoa</u></b>(Zeharkalea 3, behea)</p> <p>Informazio gehiago:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Emaila: <a href="mailto:udaltzaingoa@durango.eus">udaltzaingoa@durango.eus</a></li> <li>• Telefonoa: 94 603 00 10</li> </ul>
<p>Zenbat balio du?</p>	<p>Ordenantzaren araberako tasa</p>
<p>Prozeduraren epea</p>	<p>Txakur arriskutsuak izateko lizentzia eskaera: 15 egun Txakurrak inskribatzeko: 10egun</p>

Araudi aplikagarria	<p><b>Araudia</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 6/1993 Legea, urriaren 29koa, animaliak babestekoa. EHAaren 220. alean argitaratu zen, 1993ko azaroaren 15ean.</li> <li>• Animaliak Edukitzea eta Babestea arautzen duen Udal Ordenantza. BAOren 157. alean argitaratu zen, 1996ko abuztuaren 14an.</li> <li>• 50/1999 Legea, abenduaren 23koa, Arriskutsuak izan daitezkeen Animaliak edukitzea arautzen duena. EAoren 307. alean argitaratu zen, 1999ko abenduaren 24an.</li> <li>• 287/2002 Errege Dekretua, martxoaren 22koa, Arriskutsuak izan daitezkeen Animaliak Edukitzeko Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legea garatzen duena. EAoren 74. alean argitaratu zen, 2002ko martxoaren 27an.</li> <li>• 8/2003 Legea, apirilaren 24koa, Animalien Osasunari buruzkoa. EAoren 99. alean argitaratu zen, 2003ko apirilaren 25ean.</li> <li>• Durangoko Udalaren Kale Garbiketa eta Hondakinak Erretiratzeko Ordenantza. BAOren 119. alean argitaratua, 2003ko ekainaren 24an.</li> <li>• 101/2004 DEKRETUA, ekainaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoa. EHAaren 130. alean argitaratu zen, 2004ko uztailaren 9an.</li> <li>• Kudeaketako, Zerga-bilketako eta Ikuskapeneko Ordenantza Fiskal Orokorra, BAOren 217. alean argitaratu zen, 2014ko abenduaren 26an.</li> <li>• Animaliak Edukitzeko eta Babesteko Udal-ordenantzaren aldaketaren onarpenari buruzko espedientea. BAOren 95. alean argitaratu zen, 2015eko maiatzaren 21ean.</li> </ul>
Eskabidearen osteko prozedura	<p>Autolikidazioa egingo da, eta eskatzaileari ziurtagiria emango zaio, ordain dezan:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1.Herritarren kutzazainean (Barrenkalea, 17 behea · HAZ)</li> <li>2.Ordainketa-atebidearen bitartez.</li> <li>3.Honako erakunde laguntzaile hauetan: Kutxabank, Caixa, Laboral Kutxa edo Santander.</li> </ol> <p>Ondoren, Justizia Ministeriora bidaliko da zigor-aurrekarien eskabidea.</p>
Nork onartu behar du?	Alkatetza-dekretu bidez egiten da.
Udaleko zer sailetan izapidetzen da?	UDALTZAINGOAN.
Noiz arte du indarraldia informazio honek?	Araudia aldatu arte.